

ION GOIKOETXEA MAIZA.—*Juan Bautista Gámiz Ruiz de Oteo* (Poeta bilingüe alavés del siglo XVIII-XVIII. mendeko arabar euskal-erdal olerkaria. (1696-1773). A modo de introducción. Poesías castellanas. Bizitza olerkiak. Euskal olerkiez saiakera. Diputación Foral de Alava —Arabako Foru Aldundia. Academia de la Lengua Vasca—Euskaltzaindia. Vitoria-Gasteiz, 1983.

Liburu honek badu bere garrantzia. Espainiako Euskal Herrian euskarazko literatura, literatur mugimendu bezala, oso berandu hasi zen, Frantziako Euskal Herrian baino bi mende geroago. Han XVI.ean eta hemen XVIII.ean. Larramendi izan zen lehenbultzada eman ziona eta nonbait ikustekorik izango zuen bere garai eta bere ordenako zen Gamiz-engan ere. Baina, garai hartakoa izateaz aparte Araban euskara galzorian zegoen toki batekoa genuen Gamiz eta horrek ere bere balioa ematen dio historiaz eta linguistikaz.

Euskarazko bertsoak, liburu hortan, zoritxarrez guti dira, erdaraz agertzen duen ugaritasunaren ondoan. Euskarazko hohiek sei sailetan banatzen dira eta beren berri eman zigun Goikoetxea Maizak *Egan* aldizkari hortan (1968. urteko alearen 3-5 orrialdeetan). Geroago ordea, euskarazko parte guzi hori agertu zuten J. Goikoetxea Maiza eta E. Knörr-ek *Euskera* aldizkarian (XIX, 1974, 167-230 orr.).

Agiri denez, Gamizek erdaraz idazten zituen bertsoak, baina norbaitek tentatu zuen euskaraz ezinez eta orduan paratu zituen «Dabilcenchoac» hamazazpi bertsoz osatzen dena, honako biokin hasiaz:

*Erderaz eztuzu nay
ene viotza
euzqueraz copla eguiten
eztut nic lotza
ycuzco deugu
albadaygu eguin zerbait
nola beardegu.*

Gaizqui ba doaz ere
orra euzqueraz
ifin naiz au eguiten
neure bildurraz
 eguizu farre
 gaizqui mintzacenbadut
 lotzaric bague.

Mitxelenaren hitzaurrea daroa, Gamiz sabandoarraren euskarari buruz zenbait ohar eginaz. Gamizen bertsoarik gehienak jostakorrak dira, behar bada horregatik erabiltzen zituen irudi eta letra-jokoak. Era horrek Ferdinand de Saussure gogorazten dio Mitxelenari, neri ordea Athanasius Kircher bere *Oedipus Aegyptiacus* (Roma, 1652-1654), *Musurgia Universalis* (Roma, 1650) eta *Turris Babel* (Amsterdam, 1679) obretan, zeren garaigatik baliteke Gamizek lan horietakoren baten berri jakitea.

Historiaz, toki-izenez, ez-izenez eta abar, erdarazko partean ere berri interesgarri asko ematen ditu. Zer esanik ere ez bere sorterri Sabando eta ingurukoak eta bera bizitu zen Nafarroa partekoak, Iruñea, Lizarra, Tafalla eta abar.

Liburu atsegina da eta Jon Goikoetxea Maizak oso ondo estudiatzen du, liburuan zehar irakurleari adierazpenak eta argibideak emanaz.

J. S. M.